

amarauna  EZTABAIDA

Belarririk handiena

EEBBen Echelon sareak telekomunikazio gehienak jagoten ditu informazio «sentsiblearen» bila

Jabi Zabala • Bilbo

EZ du zerikusirik Espainiako Barne ministroarekin, ezta hango inteligentzia zerbitzuekin ere, baina euskaldunok ere bagaude haien zaintzapean, mundu osoko biztanleak bezala. Echelon sarea EEB-Bek antolatu zuten eta, nagusiki, ordenagailuz osatuta dago. Haren eginkizuna telekomunikazioak monitorizatzea da, *osaba Sam*-en segurtasun militar edo ekonomikorako interesgarriak izan daitezkeen informazioen bila. Hala Internet nola telefono eta fax bidezko komunikazioak dira begi eta belarri erraldoi honen xede.

Informazio batzuen arabera, 1975 aldean sortu zen Echelon, baina ezkutuan egon da oraintsu arte. Honen berri emanez, zenbait informazio hasi ziren agertzen 1998 aldean, baina ez zitzaizkien sinesgarritasun handirik eman, paranoiatzat jotzen zen halako sare bat egon zitekeela pentsatze hutsa. Bi urte hauetan, hala ere, Echelon gainera hainbat datu agertu dira handik eta hemendik, aitortpen ofizialak barne, eta sinesgaitza zena onartu behar izan dute askok.

Europako agintariengan izan da erreakziorik nabarmenena Echelonaren existentziaren aurrean. Ez EEBBek herriarren komunikazioak espiazen dituztelako, haren ondorio ekonomiko eta geo-


politiko kaltegarriengatik baizik. Britainia Handiaren kolaborazioa izan du Echelonek hasieratik eta horrek biziki mindu ditu Europako Batasuneko kideak, traiziotzat hartu baitute britainiarren jarrera.

Hainbat iturrik diotenez, Echelon sarea 1975 eta 1995 bitartean garatu zen, EEBB-tako National Security Agency (NSA) erakundearen gidaritzapean. *Public Enemy* filmean ageri zen agentzia honen eginkizunaren gainean oinarritutako film itogarria, teknologia berrien laguntzaz kontrol soziala noraino hel daitekeen iragarritz. Yankiekin batera Canada, Australia, Zelanda Berria eta Britainia Handia dira Echelonaren laguntzaileak, mundu mailako sarea osatuz.

Sarearen egitura 120 satelitek eta datuen prozesamendurako hainbat zentro osatzen dute. Gainera, EEBB-tako Internet sarearen bederatzi puntu estrategiko «hartuta» ditu Echelonak. Informazio jario horretan

intereseko informazioa ordenagailuek bereizten dute. Hitzegi izeneko superkonputagailuak dira, xede bati buruzko datu kopuru ikaragarri handia biltzeko gai direnak. Ikerketagai diren xedek alde aurretik erabakitzen dira: gai politikoak izan daitezke —talde islamistak, etsaien herrialdeak, barne disidentzia eta beste— edo ekonomikoak —Europako enpresa handiak esaterako— eta ondoren jarraipena hasten da. Hitz giltzarrien bidez sailkatzen da informazioa. Ordenagailuak informazio hori interesgarria dela erabakitzen badu,

gizaki bati pasatuko dio berak azter dezan. Horren aurrean protesta egiteko iragan urrian kontrol sozialaren aurkako hainbat mugimenduk proposatu zuten posta elektronikoko mezu arruntetan *Terrorist, bomb, paedophilia, antifascist* eta horrelako hitzak sartzea, sistema zortzeko asmoz.



1975 aldera sortu zen Echelon, batzuen arabera, eta ezkutuan egon da oraintsu arte

Kriptografia ere bai

Arazo bat badute Echelonaren ordenagailuek komunikazio zifratuekin. Hala ere, NSA amerikarrek atzerrian saldutako enkriptazio sistema guztietan *back door* edo sarbide ezkuturik badute, hango legeen arabera bakarrik 40 biteko enkriptazio sistemak atera baitaitezke EEBB-tatik. 40 biteko enkriptazioa apur daiteke ordenagailu indartsu batzuk aldi berean lanean jarrita. Hortik aurrerako enkriptazioan gobernuak sartzeko modu bat izan behar du, atzerrian salduko bada. Horrela, 1997an Suediako Gobernuak susto galanta hartu zuen bere 64 bit-eko enkriptazio sistematik 24 bit NSAren esku zeudela jakin zuenean. Duncan Campbell eskoziarrak otsailen Europako Parlamentuan salatu zuenez, 130 herrialderen enkriptazio sistemak kontrolpean ditu NSAk.

Campbellek Echelonaren gainera frogak aurkeztu zituen Parlamentuan: Bat NSAren beraren agiri desklasifikatuak dira, bertan, Echelon sarea aipatzen baita. Beste bat NSAko langile ohi baten testigantza da. Europarren kaltetan Amerikako korporazio handien alde lan egin duela jakitean denak hasi dira Britainia Handiari azalpenak galdatzen. Echelonaren lanari egozten zaio Europako hainbat enpresak kontratuak galdu izana, amerikarren onerako. Frantziako Gobernuak EEBBak eta Britainia Handia salatuko dituela agindu du, Frantziako komunikazio zibilak espiazeagatik. Euroganberak kaltetutako enpresei frogak biltzeko eskatu die, salaketak jarri aurretik. Baina salaketak aparte, europarrek Echelonaren aurrean euren sarea jartzea erabakia dute aspalditik, EnfoPol izeneko.

Campbellen txostena
www.iptvreports.mcmill.com
Echelon Watch
www.aclu.org/echelonwatch
Kriptopolis
www.kriptopolis.com

WEBGUNEAK

Hemeroteka birtuala

Zerbait argitaratu zen iaz EGUNKARIAN eta ez zenuen harrapatu? Ez kezkatu, 1999ko EGUNKARIA guztiak oso-osorik sarean baitituzu. Dokumentazio pilo hori baliagarriagoa egiteko, bilaketa tresna indartsu batekin dator EGUNKARIAren hemeroteca telematikoa hau. Zure herria, zure izena edo zure gustoko musika taldea inoiz aipatu dugun jakiteko, bilatu baino ez duzu egin behar. Emaizak ordenatuta emango dizkizu: bila zabiltzanaren inguruan nabarmentasun handiagoa izan zuen albisteak lehenago agertuko dira.

Egunkaria
www.egunkaria.com




Nafar parodia

Hiru «r» dituen domeinuan ez dugu Nafarroako Gobernuaren webgune ofiziala kausituko, ez eta *Diario de Navarra*-rena ere. Norbaitek *navarrismo*-az egin duen parodia garratza dago, «Diario de NavarRRRa» izenburupean. Editorialean diotenez, «euskaldunen inbasioaren mehatxua aitzakia hartuta, jendeak beste alde batera begiratu dezan eta guk aberasten segi dezagun» da helburua. Albisteen artean ondokoa: «Euskaldunek, sortzez nafarrak izan arren, nafar estatusa galduko dute eta bi aldiz gehiago ordaindu beharko dute isunengatik».

Diario de NavarRRRa
www.navarrra.net

120.000 artikuluko katalogo bat kontsultatu nahiko nuke, etxetik mugitu gabe erosteko eta %5eko deskontuarekin.
Zer egin behar dut?



Interneteko zure denda
megadenda